

# XXII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

Ereintza Elkarteko  
Eskulangintza Taldea



## SARRERA

2000. urteko Euskal Herriko XXII. Eskulangintza Azoka Apirilaren 29tik, larunbata, Maiatzaren 1arte, astelehena, ospatu da, eta iaz bezala Udal Pilotalekua eta Erviti Kaleko plazatxoan eraiketako karpa izan du kokagune. Egoitza honetan joan den urtean jasotako esperientzi onaren ondoren, azokaren azpiegitura obeagotzeko beste ahalegin bat egin da aurten, stand-etako materialea berritu eta egokituaz.

Ondorioz esan dezakegu antolatzaileen asmoak bete egin direla, eta hemen dohakie "OARSO" aldizkariaren irakurleei aurtengo azokaren berri laburtua.

## GAI BEREZIA

Errenteriako Azokak berezitasunik baldin badu, artisauek bere ekoizpenen lan-prozedura erakutsi behar izaten dutela da. Urteroko gai berezia aukeratzekoan beraz, berezitasun hau kontutan hartzen da, eta hildo hortatik ZERAMIKA gai bezala hautatzerakoan, mundu zabal eta emankor bati aukera ematen genion; bai Azokara zeramista eta buztingileen lana "in situ" eraku

tsiaz, eta baita antolatu den "KERAMIKA EUSKAL HERRIAN" deituriko erakusketa dela medio.

Beraz, Azokara etorritako 12 zeramisten bitartez, egun Euskal Herrian egiten diren haibat lan, teknika, kolore, forma eta tendentziak erakutsi nahi izan dira, ekoizpen esberdin eta ugari batez bidez.

## INAGURAZIOA

Azokaren zabaltze ofiziala, Apirilaren 29ean, larunbata, goizeko 11etan egin zen, Ereintzako Txistulari Taldearen "Alkate Soinua" musikapean. Josu Izagirre Ereintzako lehendakariaren ongi-etorriaren ondoren, Foru Aldundiko Ekonomi Saileko Diputatua den José Ramón Beloki jaunak hartu zuen hitza, eta bere ondoren, amaiera emanaz, Errenteriako Alkatea, Miguel Buen jaunak. Bertan zeuden ere, bere babesa eta laguntza ematen diguten entitateen ordezkari zenbait: José M<sup>a</sup> Aldanondo Foru Aldundiaren Ekonomin Saileko Zuzendaria, Juan Carlos Merino Alkate-ordekoa, M<sup>a</sup> Angeles Machin Kultur Saileko zinegotzia, Bengoetxea



"Keramika Euskal Herrian" Erakusketa.

OARSO



2000



Carmen Bollar stand onenaren sariduna.

jauna Kutzako ordezkaria, beste ordezkari eta zinegotziak, eta komunikabideetako ordezkariak.

### ARTISAU PARTE HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFI JATORRIAK

Ohizko eskema jarraituaz, hau da: kalitatea, aniztasuna, berrikuntzak, geografi oreka eta espazioa kontuan harturik, prozedura luze eta sakon baten ondoren osatzen da artisauen zerrenda. Aurten beraz, 64 artistaek hartu dute parte, langintzei dagokienez honela sailkatuak:

Gai berezia : Zeramika : Ohizko buztintza (2)

Tornuzko zeramika (3)

Modelatua (3)

Loza dekoratua (2)

Hormazko zeramika (2)

Zura: Altzarigintza eta taila (5)

Makilak, zaliak, eskalaproiak ... (3)

Upelgintza (1)

Jostailu eta torneatuak (3)

Otargintza: Zume otargintza (2)

Gaztain otargintza (1)

Metalkiak: Burdinlantzak (2)

Bitxigintza (3)

Brontze eta latoiak (1)

Esmalte eta grabatuak (4)

Beira (3)

Oihalki eta zuntzak: Ehungintza eta tapizak (3)

Espartinak eta zuntza txirikordatua (3)

Oihal margotuak (2)

Larrua: Pilotak (1)

Zahatogintza (1)

Larrugintza (2)

Oinetakoak (1)

Bestelakoak: Papera eta kartoia (5)

Elikagaiak (3)

Musika tresnak (2)

Lore idortuak, argizari dekoratuak (2)

Geografi jatorriaren arabera berriz, honela sailkatu dira: Gipuzkoatik (29), Arabatik (11), Bizkaitik (10), Nafarroatik (9) eta Ipar Euskal Herritik (5). Hauetatik hamazazpiren bat berriak, hau da, lehen aldiz Errenteriako Azokara etorriak. Ekoizpen edo produktu motei dagokionez, urtetik urtera berrikuntza nabarmenak ikusten dira artisuen artean, Eskulangintza osasuntsu dagoenaren seinale.

### HOBEEKIEN APAINDURIKO STAND-ARI SARIA

Beste urtetan bezala eta Gipuzkoako Bazkunde edo Cámara de Comercio-ri esker, Azokan parte hartzen duten artisuen artean, kalitate estetiko onena erakusten duen "stand"-ari ematen zaion saria, Bizkaiako Arteaga herritik etorritako Carmen Bollar buztintgilearentzat izan da. Gipuzkoako Bazkundearen partaidez osatutako epaimahaia, stand guztiak banan banan ikusi eta guztien kalitatea goraiatu ondoren erabaki zail baten aurrean aurkitu zen sariduna aukeratzeko. Sari honen 50.000 pezeta eta Agiria beraz, Apirilaren 30ean, igandea, arratsaldeko 4,00tan banatu zen, epaimahiaren ordezkari bezala Iñigo Zabaleta jauna izan zelarik.



Buztingilei omenaldia.

## ERAKUSKETA: KERAMIKA EUSKAL HERRIAN

Behin baiano gehiagotan eta Azokaren urteroko gai bereziari lotuak batik bat, zenbait erakusketa antolatu izan ohi ditugu. Aurtengoa planteatzerakoan berriz, dimentsio berri bat eman nahi izan diogu, hau da izaera propio bat. Honela Edorta Kortadi arte kritikoaren gidaritzapean, eta Fermin Leizola eta Jesus Altuna jaunen laguntzarekin, "KERAMIKA EUSKAL HERRIAN" izenburuko erakusketa bat antolatu zen Apirilaren 27-tik Maiatzak 14-arte Xepelar Erakusketa Areto egokian.

Erakusketa honen mamia, gizakiaren garapenari loturik zeramikak historiaurretik gaurdaino izan duen garapena erakustea zen. Beraz erakusketa honetan, zeramika objektualak izan duen garapena azaldu nahi izan da eta horretarako helburu estetiko eta didaktikoa duten hiru multzo nagusi bereizi dira antolamendu diakroniko baten bidez:

### 1 - HISTORIAURREA

Neolitotik, Burdin Aroa, Erromanizaziora bitarteko (K.a. 5000-K.a. 218) piezak. Donostiako Aranzadi Zientza Elkartearen, Gasteizko Arabako Arkeologi Musoaren eta Irungo Santa Elena Museoaren piezaz osatua.

### 2 - HISTORIA

Erdi Aroko eta Aro Modernoko piezak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako San Telmo Museoaren eta Euskal Herriko hainbat bilduma partikularren piezaz osatua.

### 3 - ARO GARAIKIDEA

Ereintza Elkartearen beraren fondoetako piezak eta, eskuzabaltasunez, hainbat tailer, zeramistek eta zenbait bilduma partikularrek utzitako piezaz osatua.

Eskeini diren piezen hautaketa publikoaren arreta erakartzeko behar besteko kantitatea eta garrantzia zutela uste dugu; bertan oso gutxitan erakutsi diren eta hain testuinguru zabal eta handian inoiz erakutsi ez diren objektuak eta ontziak ikus zaitezkeen. Euskal herriko gizonezkoek eta emakumezkoek historian sortu dituzten forma hauetako batzuk aukeratu eta aurkeztu dira erakusketa honetan; ez da, ordea, guztia barne hartzeko asmorik izan, zenbait eredu adierazgarri baino ez dira aukeratu eta aldi berean Katalogo batetan isladatu.

Bestalde, erakusketa honen bitartez Ereintza Elkartek omenaldi txiki bat egin nahi izan die mende honetan isil eta jator egindako lanaren bitartez iraganarekiko lokarri izan diren eta Euskal Herrian buztingintzaren eta zeramikaren tradizioari eutsi dioten lau zeramistek: Nicolas Aguirrebeitia, Federico Garmendi, José Ortiz de Zárate eta Gregorio Aramendi zenari. Omenaldi hau Apirilaren 27-an, arratsaldeko 8-etan burutu zen, oroimenezko plaka bana eskeiniaz.

## BUKAERA GISA

Azkenik, Erreterian ospatu den XXII. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka eta Zeramika Erakusketa aurrera eramatea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisauei, eskerrak ere, etorritako publikoari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei; eta nola ez, etorritako Aginteriei, eta bere laguntza eta babesa urtero ematen diguten Erakundeiei: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Erretereriako Udala eta Gipuzkoa-Donostia Kutzari. Bihoakie berrirori guztiei gure eskerririk beroena.